

TESTUINGURUA

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako **Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa 2017 – 2020** garatzearekin batera 75.000 euroko (BEZ barne) aurrekontu-partida bat gaitu da Arabako eta Trebiñuko sormen-lantegiak babesteko, beren jardura Lurralde Historikoan/Historikotik edo Trebiñuko Konderrian/Konderritik garatzen badute. Kontuan izanda lanerako ildo hau Plan Estrategikoaren markoan abian jarritako ekintzak indartzera datorrela, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak adostu dute erakunde arteko lankidetzan garatzea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren arteko bilera tekniko baten ondoren eta hainbat aukera aztertu eta gero, bi erakundeek erabaki dute Karraskani proposatzea lan-ildo honen kudeaketa.

Bi arrazoi nagusi daude horretarako: batetik, sektorearekiko lankidetzan indartu, kasu honetan Karraskanen bitartekaritzaren bidez, elkarrekin profesional honen xedea baita Euskadiko kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzea. Sare honetan eragileak, espazioak eta programak daude, eta denek zerikusia dute sormen garaikidearekin eta ezarritako sorkuntzarekin, elkarriketaren, zeharlerrotasunaren eta eremu eta diziplina hainbaten hibridaziotik. Bestetik, partida hau ahalik eta lasterren iristea nahi da arabar kultura eta sormen arloko ekosistemara.

Bi erakundeek arteko koordinazio, kudeaketa eta justifikazio lanengatik 10.000,00 euro (BEZ barne) emango zaizkio Karraskani.

1. ARTIKULUA. Laguntzaren xedea.

Agiri honen xedea da bitartekaritzaren eta sareko lanaren bidez ikerketari, berrikuntzari eta arte eta kultura arloko garaikotasunari hitza emandako proiektuei zuzendutako laguntzen deialdia egitea.

Kultura-espazio independenteetako proiektuei ere eman nahi zaizkie laguntzak, berariazko programak antolatuz eta horretarako zuzkidura, azpiegitura edota egitura egokiekiko pertsona eta talde sortzaileei espazioak, baliabideak eta laguntzak eskaintzen badizkiete beren sormen eta ekoizpen arloko prozesuak egiteko, eta prozesu horiek adierazpen artistikoak berritzera, talentua hauteman eta babestera, kudeaketa parte hartzaile eta tokiko inguruarekin harremana izatera bideratuta badaude.

Honakoak babesten eta sustatzen dituzten proiektuei lagundu nahi zaizkie:

- Elkarriketa, lankidetzan, ko-sormena edota desberdinen arteko hibridazioa eta talentuaren sustapena, gure inguruko potentzial sortzaile ahalik eta gehien garatzeko.
- Lurraldeko pertsona eta taldeen arteko komunikazio, harreman eta integrazio hobea.
- Laneko inguruak eta plataforma teknologikoak eta ez teknologikoak erabiltzea, lankidetzarako moduak, ikerketakoak eta ekoizpen artistikoak eta kulturala hazteko.
- Harremanetarako eta bitartekaritzarako bide berriak sortzea, partaideengana eta ikus-entzuleengana zuzentzeko, esperientzia esanguratsuagoak, bereizgarriagoak eta kualitatiboagoak eskainiz.
- Praktika kulturaletatik kultura eta gizarte arloko berrikuntza-estrategiak planteatuko dituzten ekimenak garatzea.
- Bere proiektuak nazioartekotzea eta sormen arloko sustapena eta trukea areagotzeko duten nazioarteko sare edo programetan parte hartzea edo horrelako sare edo programak ezartzea.
- Kultura-berrikuntzaren eta berrikuntzaren kulturaren oraingo eta etorkizuneko garapena indartzeko duten ikerketak eta azterketak garatzea.

1. Diru-laguntzen xede izan daitezke 2018ko urtarrilaren 1a baino geroago hasitako proiektuak, gehienez ere 2019ko martxoaren 31n eginda egonez gero.
2. Eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkezteari kalterik egin gabe, onuradun bakoitzeko proiektu bakarra izan daiteke diru-laguntzaren xede.

2. ARTIKULUA. Baliabide ekonomikoak eta laguntza hauen mugak.

1. Laguntza hauetarako bideratutako osoko zenbatekoa 65.000 euro da (BEZ barne).
2. Gutxienez 4 proiektu eta gehienez 8 hautatuko dira.

3. ARTIKULUA. Pertsona edo erakunde onuradunak.

1. Edozein pertsona fisiko edo juridiko aurkez daiteke, bere helbide soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñun badu, eta Eusko Jaurlaritzaren Sorgune edota Bitartez programen onuraduna izan bada 2015, 2016, 2017 edo 2018 ekitaldian edo Karraskaneko bazkidea bada 2018ko uztailearen 1ean.

Edozein pertsona fisiko edo juridiko, bere gizarte xedea deialdi honekin bat badator baina ez bada Sorgune edota Bitartez programa horien onuraduna izan edo Karraskaneko bazkide ez bada, baldintza horiek betetzen dituzten erakundeekin lankidetzan aurkeztu ahal izango da.

Inondik eta inora ere ezingo dira aurkeztu Sorgune, Bitartez edo Eusko Jaurlaritzak sustatutako programen onuradun izan diren proiektuak.

Balorazio positiboa izango dute probintziako landa-gunean garatu nahi diren proiektuek, lurralde barneko izaera sustatzen dutenek; baita landa eremua indartzeko kultura erabiltzen duten proiektuak ere, lan artistiko eta kulturalaren ohiko testuinguruetatik irteten direnek.

4. ARTIKULUA. Eskarien aurkezpena.

1. Eskariak aurkezteko epea 2018ko uztailearen 23ko 00:00etatik abuztuaren 23ko 24:00etara izango da (biak barne).
2. Pertsona fisikoek edota juridikoek beren eskariak eta eskatutako agiri guztiak bidali beharko dituzte Wetransfer edo Dropbox bidez helbide elektronikoa honetara: info@karraskan.org
3. Pertsona edo erakunde eskatzaileek beren eskariak eta dagozkien ziurtagiriak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez ditzakete. Era berean, eskariaren ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan eskaria egin duen pertsonak edo erakundeak aukeratu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2 a) eta 6.1 artikuluetan ezarri bezala.
4. Eskariak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan definitutako oinarrien baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla esan nahi dau.

5. ARTIKULUA. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. Eskatzaileari buruzko agiriak.

a) Pertsona fisikoak direnean:

- Eskaria sinatu duen pertsonaren nortasunaren ziurtagiria; pertsona horrek Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian izan beharko du helbide soziala.
- Eskarian aurkezteko unean jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokion epigrafean alta emanda egon.
- Zerga-betebeharrak beteta izan, baita Gizarte Segurantzakoak ere.

b) Pertsona juridikoak direnean:

Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian egoitza duten erakundeak, dagokien erregistroan izena emandakoak:

- Dagozkien eratze-eskritura eta estatutuak, eta dagokien erregistro publikoan izena eman izanaren ziurtagiria.
- Identifikazio fiskaleko zenbakia ziurtatzen duen txartela.
- Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren nortasunaren ziurtagiria, eta duen ordezkaritza-ahalarena.
- Eskarian aurkezteko unean jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokion epigrafean alta emanda egon.
- Zerga-betebeharrak beteta izan, baita Gizarte Segurantzakoak ere.

2. Aurkeztuko diren agiri elektronikoek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

a) Agiriak, batez ere, PDF formatuan aurkeztuko dira.

b) Aurkeztutako agiri elektroniko guztien gehienezko neurria 30 Mb izango da.

3. Pertsona fisiko edo juridiko bi edo gehiagoren lankidetzan badira proiektuak, pertsona horiek guztiek baldintza denak betetzen dituztela kreditatu beharko da.

4. Proiektuari buruzko agiriak.

- Eskatzailearen datuak, bankuko datuak, proposamenaren laburpen-fitxa, proiektuaren aurrekontua partiden arabera zatitu eta zehaztuta eta aurreikusitako gastu guztiekin, baita sarreraren aurreikuspena ere. ERANSKINEKO ereduaren arabera.
- Proposamena azaltzeko memoria, proposamenaren interesa eta balioak azalduz, aurreikusitako garapena eta proposamena behar bezala baloratzeko behar diren alderdiak zehaztuta.
- Proiektua burutzeko aurreikusitako egutegia.

6. ARTIKULUA. Balorazio-batzordea.

1. Aurkeztutako eskariak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da eta honakoak egongo dira bertan:

- Kideak: Karraskan Elkarte Profesionalak izendatutako hiru kide, deialdi honen xede den gaian adituak hirurak.
- Idazkaria: Batzordeko idazkaria izango da, hitzarekin baina botorik gabe, Karraskan Elkarteko teknikari bat.

7. ARTIKULUA. Emateko prozedura, hautaketa eta kuantifikazio irizpideak.

1. Deialdi honen kargu emango diren diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira, beraz, ezarritako diru-laguntzen gehiengo muga errespetatuz, finkatutako kopuru horien arabera pertsona edo erakunde onuradun kopuru bat hautatuko da, eta hautatutako proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko da bere dimentsioari dagokionez.

2. Onuradun izateko aukeratutako proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, banaketa-sistema bat ezarriko da eta horren arabera, 2.1 artikuluan aurreikusitako zuzkidura ekonomiko globala balorazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontuan izanda banatuko da, eta diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da inoiz ere eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan, eta ezingo ditu gainditu 2.2 artikuluan ezarritako mugak.

3. Balorazio-batzordeak baloratuko ditu jasotako eskariak eta zehaztutako alderdi bakoitza ebaluatuko du, irizpide eta baremo hauen arabera:

a) Proiektuaren kalitatea eta berritzeko gaitasuna. Kontuan izango dira sormena, berrikuntza, berezitasuna, hibridazioa eta proiektuak aurreko lan-ildoekin duen koherentzia.

Gehienez 40 puntu emango dira.

b) Kontuan izango da dibertsitatea eta eragile onuradunen eta ez onuradunen arteko lankidetzak sustatzen ari den eragile kopurua ere, deialdi honetako 3. artikuluan adierazi bezala; lankidetzak hori proiektu honen diseinu eta kudeaketa alorrekoa izan daiteke eta proiektua bera egiteko ere bai.

Gehienez 20 puntu emango dira.

c) Kultura eta gizarte arloko berrikuntza-proiektuaren interesa eta balio publikoa, baita proiektuaren hartzaileen nortasuna eta dibertsitatea ere, zeharlerrokotasuna, jasangarritasuna, berdintasuna eta kulturarako sarbide unibertsala aipatzea eta kultur-adierazpena edo sorkuntza, genero-ikuspegia integrazteko egindako ekarpena, ez soilik pertsonen dagokienez, baita edukiei dagokienez ere.

Gehienez 10 puntu emango dira.

d) Beste eragile sortzaileen eta kulturalen sustapena eta indartzea.

Gehienez 10 puntu emango dira.

e) Proiektuko informazio- eta komunikazio-estrategien egokitasuna.

Gehienez 10 puntu emango dira.

f) Nazioartekotzea eta proiektua kanpoan hedatzeko potentzialitatea.

Gehienez 10 puntu emango dira.

g) Aurrekontuaren egokitasuna, zerikusia duten antolakuntza arloko baliabideak eta proiektuaren kalitate-prezio harreman egokia.

Gehienez 5 puntu emango dira.

h) Euskararen erabilera.

Gehienez 5 puntu emango dira.

Puntuak (5) emango dira, euskara proiektuaren funtsezko ekintza izateaz gain, osorik euskaraz garatzen bada. Hala ez bada, ez da punturik emango.

12. ARTIKULUA. Ebazpena.

1. Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko ebazpena Karraskanek aginduko du balorazio-batzordeak egindako proposamenaren arabera eta banaka jakinaraziko da.

2. Era berean, ebazpena Karraskanen webgunean argitaratuko da, www.karraskan.org, jakin dadin.

3. Prozedura ebatzi eta interesatuei ebatzitakoaren berri emateko gehienezko epea, eskariak aurkezteko epemugaren biharamunetik hasi eta 30 egunetik aurrerakoa izango da.

13. ARTIKULUA. Bateriaezintasunak.

1. Deialdi honetan aurreikusitako laguntza guztiak bateraezinak izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proiektu bera edo proiektu beraren zati bat edo batzuk egiteko emandako beste laguntzekin, dela nominatiboak izan, dela zuzenak izan. Era berean,

bateraezinak izango dira musika, dantza, ikusentzunezko, antzerki, arte bisual edo liburu eta literatura arloko laguntzen aginduen arabera emandako beste laguntzekin.

Deialdi honetan aurretikusitako laguntza bateraezina izango da ADDE, APIKA, ARTEKALE eta ESKENA elkarteek kudeatutako laguntzekin, proiektu bera edo beraren zati bat edo batzuk egiteko eman badira.

14. ARTIKULUA. Pertsona onuradunaren betebeharrak.

Deialdi honetan araututako laguntzen pertsona onuradunak betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) Emandako diru-laguntza onartu. Pertsona edo erakunde onuradunek diru-laguntza eman zaien jakinarazpena jaso eta bost eguneko epean uko egiten ez badute, onartu dutela esan nahiko du.
- b) Diru-laguntza eman den xederako erabili.
- c) Deialdira aurkeztutako termino berdinetan egin diruz lagundutako proiektua. Dena dela, funtsezko aldaketarik ez dakarten aldaketak egin ahal izango dira, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoan erasanik ez badute.
- d) Onuradunek hitza ematen dute diruz lagundutako proiektuaren informazio, publizitate eta sustapen guztietan eta proiektu hori hedatzeko erabiliko diren modu guztietan adieraziko dela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lankidetzan izan dutela, eta Kulturarabaren marka ere erabiliko dute.

15. ARTIKULUA. Diru-laguntza ordaindu eta justifikatu.

1. Deialdi honen kargu emandako diru-laguntzak jarraian adierazi bezala ordainduko dira:

- a) Diruz lagundutako zenbatekoaren %75 esleipenaren ebazpena jakinaraztean emango da, jakinarazpen horretatik hogeita hamar egun igaro eta berariaz uko egin ez bazaio.
- b) Diru lagundutako zenbatekoaren beste %25a, diru-laguntza aurrez justifikatu ondoren, jarraian dagoen atalean adierazitako terminoetan.

2. Laguntza honen pertsona edo erakunde onuradunek diruz lagundutako jardueraren amaitu eta ondorengo hiru hilabeteetan, eta beti ere 2019ko ekainaren 30a baino lehen, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Buruzapenari buruzko memoria zehatza, betetze maila eta diruz lagundutako jardueraren ebaluazioa.
- Jasotako diru-laguntzaren zenbateko berdineko fakturak (zerga oinarriak) eta emandako laguntzaren zenbatekoarekin egindako gastuak egiaztatzeko ordainketen ziurtagiriak, II. ERANSKINEAN atxikitako ereduaren arabera.
- Katalogoen, programen, iragartzeko kartelen, argazkien eta gainerako material grafiko edo soinudunen aleak hizkuntza desberdinetan, berariaz aipatuaz Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren laguntza eta Kulturarabaren marka.